



Euskaleriko berriak

GIPUZKOA

Aliza.—Igandean eunen bat alizta-
tar alkariturik, Martutenen egin zan
otoruntz batez erakutsi zioten gure
alkate Olegi'ari Alejandro jaunari ber-
ren atsegina.

Atsegin au Landarbaso'tik oraindik
orain ekafti dituzten urak sartu digu-
tela esan liteke. Izan ere gure erian-
tza atzerapen aundia da ur abek
ekaitzeakin lotu deguna!

Zorionak alkate jaunari ta zorion
au Aliza'ko efi guzian zabaldu bedi!

Amasa (Bilabona).—Santiago
egunetako jaiak amaitu ziran alaita-
sun aundiaz.

—Ostegunean zortzi il zan Etxean-
dia ta Azurmendi'tar Jose. (Goyan be-
go). Eñan oso maitea zan ta onela

Zorionak mutiko olei ta jafai bide
zuzenean.

Bergara.—Berriro jausi aldi bat
izan du bere gaxoaldian Loidi'tar Joa-
kin'en emazteak.

—Igandean, operazio baten ondo-
ren, il da 85 urtedun Blain'dar Naza-
ria, Domingo apaiz jaunaren ama za-
na. (G. B.) Otoi bere gogo alde.

Deba.—Udala ta eresleri artean zef
edo zef badabilkite. Eresleriak bein-
tza oso asafe daude, lengoan kon-
tzierto ondoren biribilketa bat joaz
abiatu ziran alkateak ixildu erazi
zituelako. Zef ote da?

—Santiago egunean jokatu zan pe-
lota partidua oso gauza uisa izan zan.
Oso menderatuta ibili bai zituzten

Antonio jaunak egin zuen, oso jator.

Afatsaldean bakoitzak el zuen on-
doena bazkaldu ondoren dantzari ekin
zioten zar ta gazteak, ta beste urtetan
bezela Elgoibar'ko eresbatza etori
etzaigun afen gogor egin zuten gu-
ziak. A zef belafek erne beaf duen ze-
lai artan ixurikato izerdiaren indafa-
kin!

—Azpiazu'tar Pedro'ren emazteak
seme bat izan du.

—Lafanaga'tar Jose'ren emazte
Oses'tar Brijidak beriz, seme-alaba
bizikiak izan ditu. Zorionak guziaz.

—Ostiralean goizeko amaiketean
emengo efementari zafak ta Lastu'go
Aozpidek lasterketa bat egin zuten.
Bak onak izanak dira... bafia zaritu
dira ta Aozpide bidean gelditu zan.
Besteak efex irabazi beaf, onela!

—Gure ostikolariak jai gutxi baru
partidu bat jokatzekoak dira ta onta-
rako «Xulo» Azpilgoetaren taldeko
buru dan Egiño «referee» edo juez
izendatu dute.

Ordizia (Bilafanka).—Jaiak igar-
o dira alaitasun artean. Emengo
eresbatza naikoa ez dala, esan beze-
la, Gazteizkoa ekari zuten, au jua
orduko Zumarragako. Gañera dun-
tzaina dala, txistua dala, lo egiterik
etzegon.

Elizkizunak ere gain-gaitekoak izan
ditugu, meza nagusi, itzaldi ta guzia
oso ona Done Ana gure zaindaria ja-
sozazagatik.

Bafia alaitasun artean beti negafa
izan oi da ludi ontan ta jai abetan ere
geñatera negargafia izan da. Permin

**BANCO
VASCO
DONOSTIA**

Irabazi edo interesak iru ilabetetik iru ilabetera jaso ditezke.

Aldi jakinerako diru-jartzea

URTEBETERAKO: 5 %

BI URTERAKO: 5 %

IRU URTERAKO: 4,75 %

LAU URTERAKO: 4,50 %

azaldu zan larunbatean bere ileak
egin ziranen.

Bere seme ta gaiterako sendiari
gure samin-agufa.

Afasate.—Iragari bezela, Santiago
egunean egin gendun Aizkofi-mendira
ibiliketa edef bat.

Bezperan Arantzazuraño iritxi gi-
fian ta an ondo lo egin ta ufengo goi-
zean Jaungoikoa ta Ama Maria beaf
bezela agurtu ondoren Aizkofi-runtz
abiatu giñan 82 lagun.

Aizkofi-une edefak igarotakoan
atzeratu bihurtu giñan Urbiara ta gure
sabelak al gendun bezela bete ere bal.

Ta azkenik beriz ere onera etortze-
ko, pozaren pozaz gure etxetara bihurtu
giñan.

—Tuy, Pontevedra'ko eñan, gure
eritar ta apaiz jator'a zan Urionabare-
netxea'tar Jose jauna il da. G. b.

Asitafaga.—Beribil (automobil)
lasterketak dirala ta oi dan baño tran-
bla geyago zebiltzalako Santiago egu-
nean alkarjotze edo txoke bat izan
zan, Ergobia auzoan.

Ixuraz ein izugaria izan zan, guz-
tiak zairitu ta ilak ere eruz izango
ziralakoan zeuden. Bafian zorionez
uste baño gutxiago izan zan.

Zaurituak, bat Solano jauna izan
ezik, oso gauza gutxi izan zuten.

Ataun.—Lastef eskontzekoak omen
dira gure osalari Afue'tar Rikafido ta
Imaz'tar Permina, erian oso maite dan
neskatila atsegintsua. Zorionak ta
urte askotan irauzan bezate!

—Ataundak ere Santiago, eguna
ospatu dute. Meza nagusian, eriko
efetore Goikoetxenandia jaunak egin
zuen itzaldia. Afatsaldean beriz au-
resku ta abaf, igaro zuten denbora.

Ta dalañen urte arte!

Azpeiti.—Deun Inazio jaiak guztiz
ospatsuak izan oi dira beti eri ontan
ta aurtan ere alaxe izan omen dira.
Bafian atzeriko zalekeriak beaf baño
leku geixiagotat emanen zaiotela ta na-
go. Ez al da onela?

—Josu'ren Alabak daukaten ikasto-
lan, bertako ikasleak egindako lanxo
polit askoak ikusi ditugu.

Zorionak bai irakasle ta bai ikas-
leak.

Azkoiti.—Afoita-jauregi'tar Daniel'
en semetxo bat ugutzatu (bataiatu) du-
te Eliz nagusian «Josu Danel» euskal
izenak ezaririk. Zorionak.

—Izagir'e'tar Manuel'en alaba gaizki
samar arkitzen da. Len-bai-len osatu
bedi!

Beasain.—San Martin Ikastetxeko
amairu mutil, urtean geyena edo jato-
rena lan egin dutenak amairu lag-
un ibilketa edef bat egitera eraman
zituzten bigar amabost.

Mutilak pozik ibiliak izan beaf dute,
bada Bergaran gosaldia, Eibaren baz-
kaldu ta bertako lantegi ta izkilugintz-
ikastola ikeritu (bisitatu), Afateko Ama
Maria agurtu, Ermu, Zaldibaf, Ola-
kueta igaro ta Elio'n 'n Lourdes'ko
Amari zef edo zef esan ta gero Elge-
ta'n aratsaldeko bat artuta etxera
biurtzea, guztia beribil edef batean
egitlik, ez da gutxi.

Dr. ANTONIO ARRIETA'K

zure sudur, estafi eta
belafietako minak
sendatuko dizkitzu;
bereizki Alemania'n
gai-ori ikasi du.

Euskeraz garbi itz egiten du.

Prim kalea 19, 4.º — DONOSTIA

Ikastetxe ontan guzti-guztia egin oi
dan bezela euskera utsean egin zan
ura, euskera bakaf bakafik erabili zan
afatsalde osoan.

Jendea eruz izan zan ta guztien poz
aundiaz ara zef egin ziran:

1. Lenengo itzak. — Aizarna'tar
Joakin.

2. Koru'ko Andre Maria'ren abes-
tia.

3. Itz-egin beti euskeraz: Itz neur
tuak. — Etxenike'tar Sotero.

4. Peñando'ren astua: Ipuia. — Al-
tolagire'tar Jose.

5. Miren-magalean: Olerkitxo. —
Lekue'tar Karmen.

6. Gernika'ko: abestia.

7. Ondasuntzia: Gertakuna. —
Uleiziti'tar Bizente.

8. Kun-kun: Olerkia. — Mujika'tar
Maria Karmen.

9. Maitasunez erein: Elkar-izke-
ta. — Aratibel'dar Manuela, Larizabal'
dar Jose A., Aranber'i'tar Andone ta
Enbil'dar Joxepa.

10. Arbola bazan: Abestia.

11. Donosti: Olerkitxo. — Blan-
ko-Urribe'tar Eujenio.

12. Domingo Kanpafia: Ipuixoa.

13. Ibraola'tar Marizial.

14. Jabierto azkara: Gertakuna.

15. Guruxaga'tar Eusebi.

16. Inaki Deuna'ren eresekia.

17. Sari-banaketa.

Gora euskal ikastetxeak!

ARDAO napaf aundiak,
ezterlariko naste
bagekuak, saltzen dituzte nora-na
GALASTEGI TA LAGUNAK
Ufuzitziña 204. DEBA

Mendaro.—Oso jai edefak egin
dira Garagartza'ko auzo onetan Deun
Ana eguna dala ta. Goizean guztia ta
eliz kanpaiak jaiak zuten efi guzia go-
rantz. Meza nagusi garaian iritxi zan
Deun Ana baselitzora ibildeun edefa
ta an «Perosi»-rena abestu zan. Itzal-
dia, Izar'ko koadjutore Etxaniz'tar

eta Martin Galfarsoro anaiak Ataun-
dik jaietara etori ta bere osabarekin
emen zeuden. Ta goiz ontan beren
buruak busitzeiko asmoz ibaira jua
ta biak eriotza antxe arkitu zuten. 21
eta 18 urteko mutil oiek atsekabe go-
gofa utzi diote bai guraso ta bai osabari.
Guztiak gure samin agufa. Goyan
beude!

—ARZIA pixken bat saritzen ari da
efi ontan, bere saltzale Zubeldia'tar
Jose'k dionez. Onak nai dutenari
etxera ere eramango omen diote. Ia
ba, ordiziafak, zuen euskaldun izena
goratu!

Orendain.—«Murgi» basetxeko
Pedro Antonio'k ikasbide edefa eman
digu aurfeko egun batean.

Efetoze jaunak goiz-mezakoan efi-
tar bateri Alegitlik Alizo azpiko zubira
bitartean ogei duroko papera galdu

**Banco Vasco
DONOSTIA**
Avenida de la Libertad, 35

Zernaitako diru artu-
emanak eta diruetxe-
ko beste gora-bera gu-
ziak egiten dira BANCO
onetan.

zitziola adierazi zuen ta meza na-
gusi garaian oarpen bera egiteko ze-
gola Garayalde jauna azaldu zitzaion
ogei duroko papera eskuan zuela.

Efetoze jaunak bere poza azaldu
zuen igandeko itzelkizun aurtetik ge-
ñatera onak orendainafak bakoitzari
barea biurtzen dakitela erakusten du-
lako.

Garayalde berak, beste bein ere
mila erial arkitu bezela bere jabeari
biurtu zizkan.

Eskefak gaitzaleen izenean eta zo-
rionak guztien aldetik Garayalde'tar
Pedro Antonio, «Murgi» basetxeko
buruari.

—Egun batzuek igarotzeko etori
zaigu gure adizkide Zabala'tar Pran-
tizisko, donosti'ar gazte atsegina.

Pasai.—Gure Done zaindaria go-
ratzen alegindu da efi au, Donibanen,
goizetik eta gau berandu arte gelditu
ediz izan gera. Goizetik asi ziran,
Meza-nagusi ondoren, (ederki abestu

zuten au efiko abeslariak) dantzari
azterketak; lau biko aurfestu ziran,
eta lenengo sariya Oskila'tar Manuela
eta Goyenexea'tar Angel'ek erabazi
zuten. Emakume estropada ufena; iru
bateletan lenengo, Laboa'tar Daniela
eta Garbizu'tar Maria iritxi ziran leya
gogor ondoren.

Aitzaldian, lenengo berfeko dan-
tzari-ixikiyak ondo baño obetoago
dantzatu zuten. Ondoren, Donosti'ko
espata-dantzarien ifebetatsuna txalotu
genuen gogoz. Beriala, iru bateletan,
launa mutil gazte iteteko geñtu zeu-
dela oarfuta, inguratu giñan aien ale-
gitiak atsefizeko; buruka edef eta
ikusgaria zan uraxe; bafia besteagan-
dik ufe, bafia «Eztuten-uste» txalu-
pakuak txapeldun; gero «Miguel Mari»
kuak, eta txalupa betera «Nai degu».
Gauze, ogei mila argi pistu ziran ur-
erizean, eta eresbatza eta tanbofadak
bira eman zion eñari itxasoz. ¡Ori da
jai edefa! ¡Gora Inazio Donea!

Tolosa.—Jaimetafak beren Elkar-
te irikitzea izan zuten Santiago egu-
nean. Gipuzkoako efi askotatik lagun talde
edefak etori ziran ta beren jaiak alka-
fekin ederki igaro zituzten.

Goizeko 9'etan meza donea efiko
Parokian izan zan, eta ondoren Agi-
nagalde'tar Mancel, koadjutore jau-
nak onetsi (bedelinkatu) zitun Elkar-
te berfiko aretoak.

Gero «Teatro Cine» deritzaion to-
kian bildu ziran Espartza'tar Miguel
jaunaren itzaldia entzuteko. Lekurik
ez degu berak esan zuena azaltzeko,
bafia «euskaldunak beti euskaldun-
duaz jaraitu beaf degula sortefari
diogun maitasuna egiazkoa dala adie-
razteko» esanaz amaitu zuen. Afeta
osoaz entzuna izan zan bere itzaldia.

Au amaitutakoan bazkalizera El-
kar-te ta Mendia'neko ostatura, baz-
kaldu bitartean bere biziko telefonema
pila bat aritu zuten, txalo artean ira-
kuriaz batez ere Don Jaime'rena iritxi
zanean jura itziluba guztialan!

Oyartzuafak ziran beren alkate dan
Inazio Aginagalde ta efiko jaun prestu
Pedro Uranga ta Jose Maria Gofi're-
kin.

Ermua'tik etofita an ikusi gendun
Jose Gandiaga jaun ona.

Irun'dik Bengoetxea efiko jauna
Aranburu ta lagunak. Oien artean
Suspefegi bertolaria.

Baita ere ikusi gendun Felipe Re-
kondo jauna, azkoiti'ar mutil bikafia.
Goizeko 3'etan Azkoiti'ar iritxi ziran
bide guztia egiña.

Oñatiko gazte batzuek ere bai.
Aien artean Jauregi'azko gazte Jaime
tar ona ta ARZIA'ren irakurle suitsua.
Tolosa'ko jaimetafak berak ueste
baño jai aundi ta edefagoa iritxi zi-
tziatotela ta poz eta atseginez beterik
daude.

Urnieta.—Españiaren izenean Me-
jiko'n (Ameriketari) konsul bezela ze-
gon Jabi'el Belaunzaran mutil gazte
arfiak guztioz degun zofa ofaindu
du, il da. G. B.

Bere lagunaren artean naigabe aundia
utzi digu. Deun Inazio aurfeko egu-
nean ziran emen bere elizkizunak.
Ura jendearen emana. An azaldu zan
zenbatetario maite gendun.

Bere sendiari gure aguf samina.


Zumaya.—Aurfeko astean agurtu
gendun pozez beterik uri ontan Za-
ragoza'ko apaiz itzaltzu Luis Larre

jauna. Soldebila kardenal jaun oroi-
garfia il zutenian, berari lagun eginaz
zijoan, tafani'en (automobila) baruan,
Larre jauna, eta lau molokada (bala-
zo) berak aritu zituan. Orain bere zau-
rietatik osoro sendaturik arkitzen da.
Beragatik, atsegin aundia afitzen
degu.

—Badegu emen ere «zinea», San
Pedro jaiak ezkerre, eta auferakoan
betirako gañera. Uri aundien parean
jari gera oraintxe. «Cine blanco» dei-
tzen diote; bere ikusketa-jafaldietako
orduel, orde, «horas negras» deitu
geñizkioke ederkiki.

BASETXEK. Aizafna'ko Aizbeltz,
300 are lur lanerakuak,
eta aitalde galanta eukitzeko beste
4.000 area dituen eraentzen (alkila-
tzen) da.

Martin Mujika, Aizafna'koaren-
gana zuzendu.



Beste erie- tako berriak

¿Aluzemas'era?

España'ko Gobernuak Aluzemas
arizea erabaki ote duan-edo, eria az-
ken-egun abetan aritegata egon da.

Esamesa oiek gero ta egi-antiz gei-
ago aritu dute; ile ontan bertan solda-
ruak asiko ziralaz zioten.

Baño lengo batean Romanones'eri
zerbait galdetuta, Aluzemas'era es-
pañafak joango diranik ez sinisteko
esan zuan.

Prantziaren aurka

Prantzes diputadu batek *Le Matin*
izperingian esan du España'k eta In-
glatera'k alkarfekin egindako itun dala
tratadua prantzesen kontrakoa dala,
Tanjer'eko auzian. Agian España'k
batere konturatu gabe egin duala,
baño bere egiñta Prantzia'n oso begi
txafex ikusiko dutela. Ontza bat ira-
bazteagatik libra bat galduko duala.
Ingles itxasontzien kañoiak Abd-el
Krim azpiratuko dutela uestal du Es-
paña'k, galdetzen du.

Inglatera'k, Prantzia'k eta Espa-
ña'k bakoitzari ondoen zetofkion mo-
dura jai nai zuten Tanjer. Baño diru-
dienez azkenean Inglatera'k eta Es-
paña'k alkar aditu ta Prantziaren kal-
tez azaldu.

Batizelona'ko Bank-etxeak

Aspaldian auzi gogofa darabillkite
efi oretako Bank-etxeak eta beren en-
pliatuak. Abek aukeratutako baldintz
edo kondizioak Bank-etxeen gogo-
koak izan ez ta opoñean jari dira.

Bank-etxeak diotenez sueldoan
arauz alkarfeganatuko lirake, baño en-
pliatuen Sindikatoak Bank-etxeetan
zer ikustea izatea ezin eraman dute,
ori ofela izango balitz jendea dirua
gordetzeki atzeratu egingo litzakeala.

Azkenik, Bank-etxe guztiak ez dau-
de alkarfekin.

Jolasak

Automobil laxtefak.—Bukatu
dira. Egia esatera alako lasaitasuna
aritu degu laxterka oiek bukatzeare-
kin. Oraintxe arotuta ibili dira auto-
mobil guztiak, zarfatsuenak ere, lax-
tefaren ibiltzeko gogoz. Egun abetan
nai afia koritza libre zutela esan zi-
tekean. Askoen esanaz zoritxaren bat
geñatu beaf zuan. Ta okera izan da,
naiz automobilkoak efi aundirik ez
izan. Antigua'n automobil batek mutil
bat zapaldu du burutik. Izan ere az-
kengabeko katearen gisan ibila da
automobila. Oñezkoak eta bide baz
taraf aurtze ederkiki zurituak dira.

Eñani'ko bi tranbiek, beriz, jendez
beterik alkar jo zuten. Ala ere, ez zan
gaitz aundirik izan, bat zerbait min
artua izan ezik, gañerakoak ufatu
batzuek baizik ez zuten izan.

Automobil laxtefak asieran poli-
tak izan ziran; baño lenengo bueltak
eginda banakatu ta alkarfeganako
leiarik ez zegoen. Bein izugarizko i-
teera polita izan zan lau tafantia (au-
tomobila) erenkanan zijoazela.

Ufena Dubonnet ta Duff batak bes-
teari aurfazpazteko egiñaletan zi-
joazela Duff'ek ikusmena galdu, ari
koxkor batek betaurfekoak (begi-au-
rferoak) puskatuta, ta orma baten ga-
ñera erori zan automobil ta guzti.

Beste laxterka batean automobil
batek postea jo zuan. Ez lengoan, ez
oraingoan iforik ez zuan ajola aundi-
ko miñik aritu.

Laxterka batean euskaldun bat,
Saturtegi jauna, izan zan garaile.

Motozikletak gelago koritu dute
automobilak baño.

70 urteko laxterkari bat.—Todo-
astey eñan 100 kanako laxterka Slack
jaunak, irurogeita amaf urteko gizo-
nak, irabazi du.

Slack jaunak lenbizikoz orain be-
rogeita amasei urte dala koritu zuan.
Amalau urte zituanean bere aitak ju-
lipa edef bat eman zion laxterkan ari-
tu zalako ta gelago aritzea galazi
egin zion.

Tren baten triskantza

NEW YORK. — Pensylvania'ko
tren-expres batek izugarizko triskan-
tza egin du bi tokitan.

Bein automobil bat afapatu ta zea-
ro apuritu zuan. Bafengo lau notifik
ilda gelditu ziran.

Uñen burñibidean autokamioya ibili
ezinean gertatu zalarik, txoperak ibi-
lazi baño len, ura ere jo ta urutira
bota zuan. Bertan amabi lagun zijoan-
zen, iruk jotzea izan baño len salto
egin zuten ta gelditu ziran beste bea-
tziak guztiak il.

Harding Presidentea gaxorik

SAN FRANCISCO. — Estados
Unidos'ko Lendakari edo Presiden-
tia, Harding jauna, ajol aundiko ga-
xotasunarekin arkitzen da.

Sendalariak diotenez baliteke sen-
dazela.

Ori il da bere tokian nor jariko ote
litzaken batzuentzat buru-austea dago.

Eñusi'n sakuak beaf

LONDRES. — Eñusia'k Eskozi'ko
sakugin batzueri lau miloi saku eska-
tu die ilabete buuruan egietokan.

Beri onak dakafen itxuraz Eñusi'n
gari-biltze edefa izan dute.

Itxasontzi bat ondatu

LISBOA. —Xira'ko inguruan «Ma-
rina» izeneko ontzia ondatu da. Ber-
tan zijoazen bosteun notifik bizirik
atera dira guztiak.

Trenak alkar jo

BERLIN. — Hamburgo ta Munich
bitartean bi trenak alkar jo dute.
Azkeneko berriak diotenez ildakoak
35 dira, ta zaurituak, 54.

Geroztik Slack jaunak mila bat lax-
terka irabazi ditu.